

Bete behar ditugun jarduera garrantzitsuenetariko bat ezkontza zelebratzeko espaziorik hoberena bilatzea da, bezeroen nahien eta aurrekontuaren arabera, noski, eta inguru natural batean kokatuta dagoen leku bat izatea saiatzen gara. Hitzarmen bat daukagu baserriak, lokalak eta ezkontza osteko ospakizuna egiteko leku batzuk eskaintzen dizkigun enpresa batekin, *Lokarri*. Baina, noski, elizekin eta beste leku batzuekin hitzarmen bat daukagu, beti gure bezeroen desioak betetzeko prestatuta egongo direnak.

Ere jatetxe edo jateko leku baten bila egongo gara bezeroek eta haien ingurukoek leku eroso batean jan dezaten. Horretarako bikoteak aurkeztutako menu aukeren artean erabakiko duten batean oinarrituko gara, menu honen elikagai guztiak 0 kilometrokoak, jasangarriak eta osasuntsuak izango dira *Elikarriekori* esker.

Bestalde, gozotegi batzuekin ere harreman sendo bat daukagu bezeroek tarta bat izan dezaten bat izango nahiko badute. Tartaren diseinua aukeratzeko aholkuak emateko prest gaude laguntza beharrekotan eta prezio egingarri bat proposatzen dugu bikotearen aurrekontuetara egokitzeko.

Garraio jasangarri eta eroso bat bilatzeaz arduratzen gara, adibidez, *Elektro Bus* enpresarekin dugun elkarteak edukiera handiko autobusak esku izateko gai egiten gaitu. Baina, horrezgain, bikoteak beharko duen garraioa ere lortuko dugu. Kotxe elektrikoak, zalgurdiak, tandemak eta baliabide gehiago lor ditzazkegu, bikotearen beharrak eta ekologikoki duen jasangarritasuna kontuan hartuta.

Horrezgain, dantzaldirako eta eztei-zeremoniako musikariak izateko *Musikarri* agentziarekin elkartu garak eta beraiek ezkontza osoren musikaz arduratuko dira, baina bezeroen hauteketak kontuan hartzen, jakina. Hala ere, soinu-kutsadura ekiditzeko, bolumena nibelatzen dugu eta musika oso altu ez jartzen saiatzen gara bai natura zaintzeko baita doinu ozenei sentsibilitatea edo arazoak izan ditzaketen pertsonak errespetatzeko.

Ezkontza batean soinekoa oso garrantzitsua da eta *Soinekarri* eskaintzen dizkigun jantziak neska-lagunaren ametsak betetzeko aproposenak dira. Gainera, soineko horiek *Soinekarri* enpresak baztertutako oihalekin eginda daude, gure ingurumen aldeko erantzukizuna asetzeko. Ere, gizonezko jantziak lortzeko aukera ematen digute bikoteak mutil-lagunarentzako arropa bilatzen badute.

Gehitzeko, ekologian adituak diren pertsonekin ere kontaktuan gaude eta ekintza jasangarriak hobeto burutzeko lagunduko gaituzte, horrela, gure ingurumen erantzukizuna ahalik eta modu zuzenean garatzen saiatzen gara. Aditu hauek ere, gure ekologiari eta naturari bideratutako ikastaroan lagunduko digute gure bezeroek egiazko informazioa ezagutu dezaten.

Noski, elkarteak kontuan izan ezik, gure lagile propioak ditugu lana hobeto osatzeko eta ezkontzaren alderdi guztiak asetzeko, adibidez, diseinatzaile grafikoak, programatzaileak eta argazkilariak. Alde batetik, diseinatzaile grafikoek eta argazkilariak propaganda eta gonbidapenak diseinatzeaz eta burutzeaz arduratzen dira, beste alde batetik, programatzailea webgunea sortzen du, eta, diseinatzailearen laguntzarekin, webgune deigarri eta berezi bat sortuko dute. Baita beste gauzetarako laguntzak izango diren pertsonak ere kontratatu ditugu, gure sare sozialak eramaten duen community manager bat

behar dugu handik erakartzen ditugun bezeroen zalantzak erantzuteko edo bikoteek dituzten arazoak konpontzen saiatzeko. Webgunearen funtzionamendua aztertzearen eta erabilgarri mantentzen dela ziurtatzen den arduradun bat ere daukagu baita telefonoa zaintzen duen idazkari bat ere.

Azkenik, enpresaren nagusiak garenak kontuak, elkarteak eta bezeroekiko harremanak eramaten ditugu. Kostuak eta diru sarrerak kalkulatzeaz arduratzen gara, hau da, enpresan sartzen eta ateratzen den dirua gure eskuetan dago. Elkarteak ere kontrolatzen ditugu, guk kanpoko enprekin hitz egiten dutenak gara eta beti hitzarmena adostasun egoera batera eramaten saiatzen gara. Nahiz eta webgunearen bidez edo sare sozialetatik gurekin harremanetan jarri, hau da, gure langileekin, guk izango gara bikotearekin aurrez-aurre ikusiko garenak eta telefonoz kontaktatzen bagaituzte, jarraian izango gara guk beraiekin hitz egingo dutenak. Amaitzeko, azkenengo jarduera baten kargu egiten gara, langileak formatzeaz eta laguntzeaz. Esan dugunez bikoteen eta munduaren iraunkortasuna sustatu nahi dugu baina ere gure langileen iraunkortasuna eta erosotasuna. Langile ahalik eta profesionalenak nahi ditugu baina, guretzako, zorientasuna ere oso garrantzitsua da eta lanean daudenean pozik daudela ikustea gustatuko litzaiguke. Beti egongo gara gure langile edo bezeroen arazoak eta kritikak entzuteko prest, gure enpresaren alde bat hobetu ahal badugu hori egingo dugu.